

## ***Amalda Txiki Abesbatza***

Aurten hamar urte bete dira Amalda Txiki sortu zela. Urte hauetan hainbat aldaketa jasan ondoren gaur egunean zazpi eta hamahiru urte bitarteko hogeita bi gaztetxok osatzen dute taldea .

1998ko Santa Zezilia ospakizunean izan zen taldearen aurkezpena publikoaren aurrean eta geroztik ekitaldi eta saio desberdinetan erakutsi du bere lana. Zestoan zortzi gabon kontzertutan hartu du parte eta Andoainen ospatutako abesbatza gazteen topaketetan ere izan ziren.

Kurto bukaerako ekitaldi berezietan ere beraien lanaren erakustaldi bat egiten dute urtero Zestoan, baita Azkoitian ere, Floreaga ikastetxearen gonbidapena onartuz berauek antolatzen duten Azkoitiko gabon kanten jaialdian parte hartuaz.

Amalda Txiki Abesbatzaren zuzendaria gaur egun Felipe Murillo dugu.